


Industri prezioak %0,2 jaitsi ziren 2012ko apirilean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2012ko apirila 2011koaren aldean) %2,4 igo ziren

Euskal AEko industria prezioen indizea: Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,2 jaitsi ziren 2012ko apirilean aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan hartuta, apirileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %2,4ko hazkundean da.

Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



(*) 2012ko apirila urte arteko hazkundea
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2012ko apirilean, "Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa" (%1,7), "Industria kimikoa" (%0,7), "Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa" (%0,4) eta "Kautxu, plastiko eta beste produktu ez-metalikoen fabrikazioa" (%0,4) adarrek, besteak beste, gehitu zituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Bestalde, prezioetan jaitsierak izan zituzten sektoreak honakoak izan ziren: "Erauzketa industriak" (%-1,2), "Kokeriak eta petrolioaren finantza" (%-1,1), "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (%-0,5).

Urte arteko aldia, hots, 2012ko apirilean, 2011koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adar hauek izan dituzte: "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (%11,8), "Kokeriak eta

petrolio-fintzea (%8,1), "Industria kimikoa" (%4,4). Jaitsierak izan dituzte: "Metalurgia eta metalezko produktuak" (%-1,6) eta "Produktu farmazeutikoak" (%-0,5).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapen berriari jarraituz, apirilean, sektore-talde handien prezioen bilakaerak desberdinak izan ziren: Energiaren prezioak %0,7 jaitsi ziren; Bitarteko ondasunenak %0,1; Ekipo-ondasunenak %0,1 igo eta Kontsumo-ondasunenak %0,0. Horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak %0,0 eta Kontsumo-ondasun iraunkorrenak %0,2 igo.

Ondasun-talde handi horietako prezioen bilakaerak goranzkoak dira urte arteko aldian, Bitarteko ondasunetan izan ezik, non %0,3 jaitsi diren. Energiaren prezioak %9,6 igo ziren, Ekipo-Ondasunenak %1,6 eta Kontsumo-Ondasunenak %1,6. Azken hauen artean, %1,9 igo dira Kontsumo-ondasun ez iraunkorren prezioak eta %0,8 Kontsumo-ondasun iraunkorrenak.

INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. 2012ko APIRILA				
GOIBURUAK	INDIZEA Oinarria 2005=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
INDIZE OROKORRA	125,7	-0,2	2,4	2,4
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	122,0	-1,2	1,2	-0,9
Manufaktura-industria	122,1	-0,2	1,4	2,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	171,4	-0,2	11,8	6,3
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondasunak	115,7	0,0	1,6	1,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,1	0,2	0,8	0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	119,9	0,0	1,9	1,2
Ekipo-ondasunak	112,1	0,1	1,6	0,8
Bitarteko ondasunak	119,5	-0,1	-0,3	1,0
Energia	171,9	-0,7	9,6	8,4

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari \(IPRI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen \(IPRI\) gaineko datu-bankua](#)